

Tubalen seme-alaben atzoko eztabaidak

Juan Madariaga irakasleak euskararen inguruan historian izan diren eztabaidak aztertu ditu liburu batean. 2005ean publikatu zuen ingelesez *Anthology of Apologists and Detractors of the Basque Language* lana eta iaz gazteleratu zuen. Lagunduko al digu gaur egun euskarari buruz dauden hainbat jarrera ulertzen?

URKO APAOLAZA

“HIZKUNTZA, gauza guztien gaine-
tik, komunikatzeko tresna da”.
Esaldi zentzuzkoa dirudi honako-
ak, baina askori oilo-ipurdia jarri
zion Eguberritako diskurtsoan
Miguel Sanz Nafarroako Gobernu-
ko presidentearen ahotik hori
entzuteak. Euskarazko hedabideei
emandako diru laguntzen murriz-
keta ikaragarriaz ari zen Sanz presi-
dentea, eta inplizituki aditzera ema-
ten du euskarak ez duela
komunikatzeko gaitasunik beste
“hizkuntza komertzialen” parean.

Noizbehinka, horrelakoak
entzun izan dira politikari edo iritzi-
gile zenbaiten artean, euskararen
gaineke topiko eta mitoak guztiz
gainditu gabe dauden seinale. Zent-
zu horretan, euskal imajinarioaren
bilakaeraz jabetzea bezain garran-
tzitsu zaigu horren kontra egin
zutenei kasu egitea. Juan Madariaga
UPNAko irakasleak horixe egin du
bere *Anthology of Apologists and
Detractors of the Basque Language* libu-
ruan (Euskal hizkuntzaren apolo-
gisten eta kontrakoen antologia).

Euskara “kutsatu gabearen” ideia

Juan Madariagaren ustetan, “pirue-
ta legitimatzailea” egin zuten eus-
kaldunek duela bost mende. Antza,
euskal imajinarioa osatzen zuten
elementuak ez dira, berez, soilik
euskaldunenak. Hizkuntzaren
antzinatasuna, noblezia, fedea...
horiek espainiar monarkia justifika-
tzeko ere erabili izan ziren, baina
ordukoek euren probetxurako mol-



Juan Madariagak bere lana gaztelaniara itzuli du berriki *Apologistas y detractores de la lengua vasca* (FEDHAV, 2008) izenarekin. Liburuan, historiako 69 autore ezagunen biografia eta testuak aukeratu ditu, ideia kontrajarrien ezinezko puzzlea irudikatuz.

datu zituzten eta “benetako espai-
niarrak” bilakatu ziren euskaldunak.

XVI. mendeko euskal historialari
batek zabaldu zuen batez ere mitoak,

“Pirueta legitimatzailea” egin omen zuten euskaldunek.

Euskal imajinarioaren
elementuak ez omen dira
soilik euskaldunenak

Esteban de Garibayk. Beste herri
batzuetan ere ohikoa zen kondairari
heldu zion: Tubalek ekarri zuen hiz-
kuntza bazter honetara, orduz
geroztik bazter honetako jendeak ez
ziren sekula garaituak izan, garaituak
izan ez zirenez “kutsatu gabe” eta
noble izaten jarraitzen zuten guzti-
guztiekin, eta horren froga garbiena
zein da? Euskara.

Tubalismoak eta bere barianteek
(vascocantabrismoa, vascoiberis-

XIX. mendean ika-mika prentsara

Juan Madariagak *Anthology...* liburuan galdegiten du sistema foralaren XIX. mendeko gainbeherak euskararen likidazioa ote dakarren.

Hain zuzen, mende horren hasieran euskararen inguruko eztabaida liburutatik prentsara pasatu zen lehen aldiz. Juan Antonio Zamacolak –Simon Bernardoren anaia, *zamacolada* eragin zuena– hasi zuen lehen burrunba, testu batean euskararen “perfekzioak” azpimarratu zituenean 1806an: “*No se conoce otra en el mundo con quien pueda compararse en discreción, sabiduría y excelente unión de todas la partes que la constituyen*”, esan zuen.

Zamacolaren idatziak polemika sortu zuen Madrilgo hainbat egunkaritan (*El Mercurio de España, La minera, Diario de Madrid...*). Horrekin, euskararen apologisten kontrako “eraso teorikoa” hasi zuten Espainiako protoliberalek. Zamacolak eta bere enparauek oraindik

defendatzeko zituzten tubalismoaren ideiak zaharkiturik zeuden beraientzat. Martinez Marina, Joaquin Traggia eta Jose Antonio Conde izan ziren erasoaldi horren abanderatuak. Hara zer idatzi zuen Condek 1806an: “*El vascuence por que más lo deliren en su elogio los apologistas, es la lengua ruda, incapaz de elegancia, desaliñada en su composición, de sonidos desagradables y terminaciones monótonas*”.

Jakina, erantzuna ez zen erantzunik gabe geratu. Azken batean, euskararen kontra egiteak foruen kontra egitea esan nahi baitzuen. Pablo Pedro Astarloa, Joan Antonio Mogel, José Yanguas y Miranda... izan ziren eztabaidan sartu ziren batzuk. Juan Bautista Erro andoaindarrak zuzenean erantzun zion Conderi, azalduz euskara hizkuntza guztietan “perfektoena zela”, “naturaren kopia fidela”, “Lehenengo Aroaren artxibo ederra”...

moa...) teoria arrunt bitxiak defendatu izan zituzten. Esaterako, toponimiaren jatorri biblikoa azalduz –Aralar armeniarren Ararat santuarekin identifikatuz–, edo burdinaren erabilera noblea goraipatuz. Ideia hauek guztiak, erabat normalak ziren beste lekuetan ere, zientziak bete ezin zuen esparrua nolabait betetzeko modua baitzen.

Pentsamolde horrek birmoldaketak izan ditu Euskal Herrian, baina Madariagaren iritziz, oinarrian bere horretan iraun du XIX. mendera arte. Bere ustetan, euskararen protagonismoak, hizkuntzarekin baino, hizkuntz komunitatearen nortasunarekin du zerikusia. Alegia, foruak defendatzeko erabili izan zela hizkuntza –salbuespenak salbuespen–; Espainiarekin egindako “paktua” sostengatzeko, esan nahi da. Beraz, erai-kin horren osagai nagusia euskara da, baina foruak dira bere eskola.

Hizkuntzaren berezia: “Grosero y bárbaro”

Duela gutxi honela zioen Juan Carlos Etxegoin *Xamar*-ek *El Dia-*

rio Vasco-n: “Mendeak daramatzagu hainbat topiko faltsuri bueltaka, euskara bereizten duten bi ‘anormaltasunekin’ zerikusia dutenak: gramatikalki isolatua dela eta Historiaurretik bizirik iraun duela komunitate linguistiko bezala”.

Harrigarriena da, oraindik orain, zenbait diskurtsotan antigoalekoa zaigun eztabaida haren arrastoak aurkitzea

Euskararen “anormaltasun” horiek harridura sortzen zuten –eta sortzen dute– atzerritarrengan. Baina euskal imajinarioaren alde egiteko bezala, kontra egiteko ere erabili izan zen –eta erabiltzen da– hizkuntzaren berezia. Juan Mariana XVI. mendeko Talaverako jesuita da zutarri nagusia gure hizkuntza gutxieste-

ko orduan: “*Solo los vizcaínos [euskaldunak] conservan hasta hoy su lenguaje grosero y bárbaro, y no recibe elegancia, y es muy diferente de los demás*”.

Gaur egungo “piruetak”

Gaur, badakigu XVI. mendetik kasik orain arte iraun duten aurreiritzi eta mitoek ez dutela zentzurik. Esaterako, adituek badakite euskara ez zela hizkuntza isolatua izan, Europako “autopista batean” bizi eta “egokitzen jakin izan duelako”, *Xamar*-ek dioen bezala.

Harrigarriena da, oraindik orain, zenbait diskurtsotan antigoalekoa zaigun eztabaida haren arrastoak han-hemenka aurkitzea. Batzuk euskararen erabilera indartzeko politiken kontra aritzen direnean, eta beste batzuk botere guneetatik hartzen diren erabaki ulertezinak justifikatzeko orduan, “pirueta” nabarmena egiten dute, eta askotan, euskara goratzeko sortu ziren mitotetan oinarritzen dira orain, euskararen kontra egiteko. ■

Babeslea: Errenteriako Udala

